**OGASUN ETA**
**HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

**7238**

218/2008 DEKRETUA, abenduaren 23koa, Euskal Finantza Erakundearen Estatutuak onartzekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2008ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onartu dituen abenduaren 28ko 15/2007 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriaren bidez Euskal Finantza Erakundea eratu da. Erakunde hori zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa eratu da. Berezko nortasun juridikoa eta bere helburuak betetze aldera jarduteko gaitasun osoa du. Finantzen esparruan eskudun den sailari dago atxikita.

Aipatutako xedapenaren 2. paragrafoarekin bat etorriz, Euskal Finantza Erakundeak zuzenbide pribatuko erakunde publikoei aplikatu behar zaizkien legezko xedapenak (xedapen honetan ezarritako berezitasunei dagokienez izan ezik) eta estatutuak izango ditu aginduzko. Izan ere, estatutu horiek Eusko Jaurlaritzak onartu beharko ditu, dekretu bidez, finantzen esparruan eskudun den sailak proposamena egin ostean. Era berean, 4. paragrafoarekin bat etorriz, Euskal Finantza Erakundeko gobernu-organo gisa jardungo dute Administrazio Kontseiluak, Zuzendaritza Nagusiak eta estatutuetan ezartzen diren gainerakoek. Estatutuek honako hauek arautuko dituzte: erakundearen eginkizunak, osaketa, kideen izendapena, egoitza, egitura organikoa eta funtzionatzeko araubidea.

Hori dela bide, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuak proposatuta eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko abenduaren 23an eztabaidatu eta onartu ostean, hauxe,

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Euskal Finantza Erakundearen estatutuak onartu dira, Euskal Autonomia Erkidegoko 2008ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onartu dituen abenduaren 28ko 15/2007 Legeko zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa garatuz. Horretarako, hain zuzen, dekretu honen eranskineko testua bete da.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Jarduerak hastea.

Euskal Finantza Erakundeak dekretu hau indarrean jartzen denean ekingo die dagozkion jarduerei.

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA**
**Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

**7238**

DECRETO 218/2008, de 23 de diciembre, por el que se aprueban los Estatutos del Instituto Vasco de Finanzas.

En virtud de la disposición adicional séptima de la Ley 15/2007, de 28 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2008, se crea el Instituto Vasco de Finanzas, como un ente público de derecho privado, con personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines, adscrito al departamento competente en materia de finanzas.

De conformidad con el apartado 2 de la referida disposición, el Instituto Vasco de Finanzas se regirá por las disposiciones legales aplicables a los entes públicos de derecho privado, salvo las especialidades establecidas en dicha disposición, y por sus estatutos, que serán aprobados por decreto del Gobierno Vasco a propuesta del departamento competente en materia de finanzas. Asimismo, de acuerdo con su apartado 4, los órganos de gobierno del Instituto Vasco de Finanzas serán el Consejo de Administración, la Dirección General y aquellos otros que se establezcan en sus propios estatutos, que regularán sus funciones, la composición y nombramiento de sus miembros, así como la sede, estructura orgánica y régimen de funcionamiento de dicho instituto.

En virtud de ello, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 23 de diciembre de 2008,

DISPONGO:

***Artículo único.***– Se aprueban los Estatutos del Instituto Vasco de Finanzas, en desarrollo de lo previsto en la disposición adicional séptima de la Ley 15/2007, de 28 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2008, conforme al texto que acompaña como anexo al presente Decreto.

DISPOSICIÓN ADICIONAL.– Inicio de actividades.

El Instituto Vasco de Finanzas iniciará sus actividades con la entrada en vigor del presente Decreto.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta eginkizunak ezarri dituen otsailaren 28ko 42/2006 Dekretua aldatzea.

Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta eginkizunak ezarri dituen otsailaren 28ko 42/2006 Dekretuko 2. artikuluaren 4. paragrafoa aldatu da, eta e) idatz-zatia gehitu zaio paragrafoari. Idatz-zati berriaren idazketa:

«e) Euskal Finantza Erakundea izeneko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa, Ogasun eta Finantza Sailburuordetzaren bitartez».

***Bigarrena.***– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko abenduaren 23an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Modificación del Decreto 42/2006, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

Se modifica el apartado 4 del artículo 2 del Decreto 42/2006, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública, añadiendo una nueva letra e), con la siguiente redacción:

«e) El ente público de derecho privado Instituto Vasco de Finanzas, a través de la Viceconsejería de Hacienda y Finanzas».

***Segunda***.– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de diciembre de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

## EUSKAL FINANTZA ERAKUNDEAREN ESTATUTUAK ONARTU DITUEN DEKRETUAREN ERANSKINA

### I. KAPITULUA
### IZAERA, EGOITZA ETA JARDUTEKO EREMUA

***1. artikulua.***– Izaera, atxikipena eta araubide juridikoa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko 2008ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onartu dituen abenduaren 28ko 15/2007 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriaren arabera, Euskal Finantza Erakundea zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da eta finantzen arloan eskuduna den Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Sailari dago atxikita, berezko nortasun juridikoa du eta erakundea sortzeari buruzko legeak, estatutu hauek eta indarrean dauden gainerako legeek esleitu dizkioten xede eta helburuak betetze aldera jarduteko gaitasun osoa du.

2.– Euskal Finantza Erakundeak kanpoko harremanetan, oro har, aplikatu behar zaizkion zuzenbide zibileko, merkataritza zuzenbideko eta lan zuzenbideko arauak betetzen ditu. Salbuespen gisa, alabaina, botere publikoez baliatzea dakarten egintzetan zuzenbide publikoa bete behar da.

3.– Erakundeari aplikatu behar zaion araubide juridikoan honakoek ezarritako arauak sartzen dira: Euskal Autonomia Erkidegoko 2008ko ekitaldirako aurrekon-

## ANEXO AL DECRETO 218/2008, DE 23 DE DICIEMBRE. ESTATUTOS DEL INSTITUTO VASCO DE FINANZAS

### CAPÍTULO I
### NATURALEZA, SEDE Y ÁMBITO DE ACTUACIÓN

***Artículo 1.***– Naturaleza, adscripción y régimen jurídico.

1.– El Instituto Vasco de Finanzas es un ente público de derecho privado adscrito al Departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en materia de finanzas, con personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar para el cumplimiento de los fines y funciones que le atribuyen su Ley de creación, estos Estatutos y demás normativa vigente.

2.– El Instituto Vasco de Finanzas somete su actividad en las relaciones externas, con carácter general, a las normas de Derecho civil, mercantil y laboral que le sean aplicables, excepto en los actos que implican el ejercicio de potestades públicas, los cuales quedan sometidos a Derecho público.

3.– El régimen jurídico aplicable al Instituto comprende las normas que establece la disposición adicional séptima de la Ley 15/2007, de 28 de diciembre,

tu orokorrak onartu dituen abenduaren 28ko 15/2007 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriak, estatutu hauek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoei aplikatu behar zaizkien lege eta xedapen orokorrak.

***2. artikulua.–*** Egoitza eta jarduteko eremua.

1.– Euskal Finantza Erakundeak Bilboko udalerrian du egoitza nagusia; hori gorabehera, Administrazio Kontseiluak ezartzen duen beste edozein lurralde eremutan ere izan ditzake bulegoak.

2.– Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoan jardungo du.

II. KAPITULUA
HELBURUA ETA EGINKIZUNAK

***3. artikulua.–*** Helburua.

Euskal Finantza Erakundearen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren finantza politikarako eta kreditu publikorako bitarteko gisa jardutea.

***4. artikulua.–*** Eginkizunak.

1.– Euskal Finantza Erakundeak, dituen xedeak burutze aldera, eginkizun hauek gauzatu ahal izango ditu:

a) Diruzaintza eta finantza kudeaketa zerbitzuak ematea eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta horren menpeko erakundeen zorpetzeari lotutako lanak gauzatzea, finantzen esparruan eskuduna den sailak ezarritakoa betez betiere.

b) Kredituak, abalak eta bestelako kauzioak eman edo bideratzea erakunde autonomoen, korporazio publikoen eta enpresa publiko eta pribatuen izenean, baina aurrekontuei buruzko urteko legeetan ezarritako mugak zainduz.

c) Sozietate kapitalean edo fundazioaren zuzkiduran parte hartzea, edo finantza laguntza ematea finantzei lotuta ez dauden enpresak finantzatzen edo sustatzen laguntzen duten sozietate edo fundazioei eta, bereziki, elkarren bermerako sozietateei, finantza merkatuetan jarduten duten erakundeei edo antzekoei.

d) Sustapenerako finantzaketa bideratu eta kontrolatzea. Horretarako, finantzei lotuta ez dauden enpresek bere kapitalean parte hartuko dute edo bestelako finantzaketa egingo da, Eusko Jaurlaritzak onartutako sektore politiken esparruan.

e) Finantzen esparruko aholkuak ematea eta txostenak egitea Jaurlaritzaren Kontseiluari edo finantzen esparruan eskudun den sailari, horrelakorik eskatu dutenean edo bere ekimenez.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren ordezkari gisa jardutea Eusko Jaurlaritzak edo finantzen

por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2008, los presentes Estatutos y las leyes y disposiciones de carácter general que resulten aplicables a los entes públicos de derecho privado.

***Artículo 2.–*** Sede y ámbito de actuación.

1.– El Instituto Vasco de Finanzas tiene su sede principal en el municipio de Bilbao, sin perjuicio del establecimiento de otras dependencias en los ámbitos territoriales que determine el Consejo de Administración.

2.– El ámbito territorial de actuación del Instituto es el de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

CAPÍTULO II
FINALIDAD Y FUNCIONES

***Artículo 3.–*** Finalidad.

El Instituto Vasco de Finanzas tiene como finalidad actuar como instrumento de la política financiera y de crédito público de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

***Artículo 4.–*** Funciones.

1.– El Instituto Vasco de Finanzas, para la consecución de sus fines, podrá realizar las siguientes funciones:

a) Prestar los servicios de tesorería y de gestión financiera y, en particular, del endeudamiento de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de las entidades de ella dependientes, en los términos que le atribuya el departamento competente en materia de finanzas.

b) Conceder o instrumentar créditos, avales y otras cauciones, a favor de entidades autónomas, corporaciones públicas y empresas públicas y privadas, dentro de los límites previstos en las leyes anuales de presupuestos.

c) Participar en el capital social o dotación fundacional o prestar apoyos financieros a sociedades o fundaciones que faciliten la financiación o la promoción de empresas no financieras y, en particular, a sociedades de garantía recíproca, entidades que actúan en mercados financieros o similares.

d) La instrumentación y el control de la financiación destinada a la promoción o fomento, mediante toma de participaciones en su capital u otro tipo de financiación, de empresas no financieras, decidida en el marco de las políticas sectoriales aprobadas por el Gobierno Vasco.

e) Prestar asesoramiento en materia financiera y emitir informes para el Consejo de Gobierno o el departamento competente en materia de finanzas, a petición de éstos o por iniciativa propia.

f) Ejercer la representación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en cuestiones de

esparruan eskudun den sailak agindu dizkion finantzei eta kredituei buruzko gaietan.

g) Legeek, estatutu hauek edo beste arau batzuek ezartzen dizkioten eginkizunak edo Jaurlaritzaren Kontseiluak nahiz finantzen esparruan eskudun den sailak agintzen dizkiotenak, betiere bere eskumenen esparruan.

2.– Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez esleituko zaizkio erakundeari dagozkion eginkizun eta eskumenak; dekretu horretan, gainera, horien edukia eta ahalmen-esparrua zehaztuko dira.

3.– Euskal Finantza Erakundea, Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeko 24.6 artikuluan xedatutakoren ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren baliabide propio eta zerbitzu teknikotzat jo behar da. Finantzen eremuan eskumena duen Sailak erakundeari eska diezaioke bere helburuarekin lotutako azterlanak eta jarduerak burutzeko; eta erakundeak hala jardun beharko du, gomendioa egiten duenak bere aldetik ezarritako jarraibideekin bat. Ekonomiaren eta finantzen mailako askitasun irizpideak erabiliz Euskal Autonomia Erkidegoko sail eskudunak —zeinari atxikita dagoen erakundea- ezarritakoa erreferentzia modura hartuta ordainduko dira.

## III. KAPITULUA
## GOBERNU ORGANOAK

### 1. ATALA
### XEDAPEN OROKORRA

***5. artikulua.***– Gobernu organoak eta egitura organikoa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko 2008ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onartu dituen abenduaren 28ko 15/2007 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz, Euskal Finantza Erakundeak honako gobernu organoak izango ditu:

a) Administrazio Kontseilua.

b) Zuzendaritza Nagusia.

2.– Halaber, Euskal Finantza Erakundeak Aholku Kontseilu bat ere izango du, zeinaren helburua Administrazio Kontseiluari aholkuak eman eta horrek egindako kontsultei erantzutea baita.

3.– Euskal Finantza Erakundearen Administrazio Kontseiluko eta Aholku Kontseiluko partaideen aukeraketan eta izendapenean emakumezkoen eta gizonezkoen arteko orekari eutsiko zaio ahal dela, zeintzuk gaitasun, ahalmen eta prestakuntza egokiak izan beharko dituzten, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasu-

índole financiera y crediticia que el Gobierno Vasco o el departamento competente en materia de finanzas le encomiende.

g) Cualesquiera otras que le atribuyan las leyes, los presentes estatutos u otras normas o que le encomiende el Consejo de Gobierno o el departamento competente en materia de finanzas en el ámbito de sus competencias.

2.– Las atribuciones de funciones y competencias que se asignen al Instituto deberán llevarse a cabo mediante un decreto del Gobierno Vasco, que determinará el contenido y alcance de las mismas.

3.– El Instituto Vasco de Finanzas tiene, a efectos de lo dispuesto en el artículo 24.6 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, la condición de medio propio instrumental y servicio técnico de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi. El departamento competente en materia de finanzas podrá encargar al Instituto la realización de estudios y otras actuaciones relacionadas con su finalidad y éste vendrá obligado a realizarlas de acuerdo con las instrucciones fijadas unilateralmente por el encomendante. Los encargos serán retribuidos por referencia a tarifas fijadas con criterios de suficiencia económico-financiera por el órgano competente del departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma al que se encuentre adscrito el Instituto.

## CAPÍTULO III
## ÓRGANOS DE GOBIERNO

### SECCIÓN 1.ª
### DISPOSICIÓN GENERAL

***Artículo 5.***– Órganos de gobierno y estructura orgánica.

1.– De conformidad con la disposición adicional séptima de la Ley 15/2007, de 28 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2008, los órganos de gobierno del Instituto Vasco de Finanzas son:

a) El Consejo de Administración.

b) La Dirección General.

2.– Asimismo, el Instituto Vasco de Finanzas contará con un Consejo Asesor con funciones de consulta y asesoramiento al Consejo de Administración.

3.– En el nombramiento y designación de las personas que han de formar parte del Consejo de Administración y del Consejo Asesor del Instituto Vasco de Finanzas se procurará una presencia equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuadas, de conformidad con lo dispuesto en

nerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 23. artikuluan xedatukoaren arabera.

4.– Administrazio Kontseiluak onartu behar ditu erakundearen barne antolaketa eta hor egindako aldaketak, zuzendari nagusiak proposamena egin ostean.

2. ATALA
ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

***6. artikulua.***– Osaketa.

1.– Administrazio Kontseilua erakundearen gobernu organo nagusiena da. Kontseiluko kideak:

a) Kontseiluburua: finantzen esparruan eskuduna den sailburua.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezko gisa jardungo duten lau kontseilukide. Sailburuen maila izango dute eta Eusko Jaurlaritzak izendatuko ditu; horietariko hiru finantzen esparruan eskudun den sailburuak proposatuko ditu eta bestea industria eta ekonomia sustatzeko esparruan eskudun den sailburuak.

2.– Administrazio Kontseiluko idazkariak hizpidea izango du baina ezin izango du botorik eman; kontseiluburuak izendatuko du erakundeko langileen artean.

3.– Erakundeko zuzendaria kontseiluak egindako bileretara joango da; hizpidea izango du baina ezin izango du botorik eman.

***7. artikulua.***– Kontseiluburua.

1.– Administrazio Kontseiluko burua erakundeko burua ere izango da.

2.– Euskal Finantza Erakundeko Administrazio Kontseiluko buruaren eginkizunak:

a) Organoaren ordezkari nagusia izatea.

b) Kontseiluaren ohiko edo ezohiko bileren deialdia egitea eta bileretarako gai-zerrenda ezartzea.

c) Kontseiluaren bileretan buru aritzea, eztabaidak zuzentzea eta, oro har, bilerak ondo burutzeko behar diren ahalmenak erabiltzea.

d) Berdinketak bere kalitateko botoarekin ebaztea.

e) Kontseiluak egindako bileretara beste pertsona batzuk ere joan daitezen baimentzea, bertan jorratuko diren gaiak kontuan hartuta hori egokia dela uste duenean.

f) Kontseiluaren aktak eta erabakien ziurtagiriak ikusi eta onestea.

g) Kontseiluko buru izateak berez dakartzan gainerako eginkizunak betetzea.

3.– Erakundearen Administrazio Kontseiluko burua ez badago, finantzen arloan eskumena duen Saileko

el artículo 23 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

4.– La fijación y modificación de la organización interna del Instituto será aprobada por el Consejo de Administración, a propuesta del Director o Directora General.

SECCIÓN 2.ª
CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN

***Artículo 6.***– Composición.

1.– El Consejo de Administración es el órgano superior de gobierno del Instituto y está constituido por los siguientes miembros:

a) Presidente o presidenta: el Consejero o Consejera del Departamento competente en materia de finanzas.

b) Cuatro vocales en representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con rango de Viceconsejera o Viceconsejero, designados por el Gobierno Vasco, tres a propuesta del Consejero o Consejera del Departamento competente en materia de finanzas y uno a propuesta del Consejero o Consejera del Departamento competente en materia de industria y promoción económica.

2.– El secretario o la secretaria del Consejo de Administración, con voz y sin voto, será nombrado por la presidenta o presidente entre el personal del Instituto.

3.– El Director o la Directora del Instituto asistirá a las reuniones del Consejo, con voz pero sin voto.

***Artículo 7.***– Presidencia.

1.– El presidente o presidenta del Consejo de Administración lo será, a su vez, del Instituto.

2.– Corresponde a la presidencia del Consejo de Administración del Instituto Vasco de Finanzas:

a) Asumir la superior representación del órgano.

b) Acordar la convocatoria ordinaria o extraordinaria de las sesiones del Consejo y la fijación del orden del día.

c) residir las sesiones del Consejo, dirigir las deliberaciones y, en general, ejercitar las facultades precisas para el adecuado desarrollo de las sesiones.

d) Dirimir los empates con voto de calidad.

e) Autorizar la asistencia de otras personas a las reuniones del Consejo si lo juzga conveniente por la naturaleza de los asuntos a tratar.

f) Visar las actas y certificaciones de los acuerdos del Consejo.

g) Ejercer cuantas otras funciones sean inherentes a su condición de Presidente o Presidenta del Consejo.

3.– En caso de ausencia de quien ostente la Presidencia del Consejo de Administración del Instituto, dirigi-

ordezkaria den bokalak gidatuko ditu organo horretako bilerak.

***8. artikulua.***– Eskumenak.

Administrazio Kontseiluak hurrengo eskumenak izango ditu:

a) Urtero zehaztea erakundearen jardun orokorrak, Eusko Jaurlaritzak emandako arauak betez.

b) Erakundearen aurrekontuko aurreproiektua onartzea.

c) Erakundeak aurkeztu behar dituen kontuak onartzea, finantza kontrolaren ondorioetarako.

d) Erakundearen urteko jardueren memoria onartzea.

e) Erakundeko barne antolaketa, plantila eta, hala dagokionean, lanpostuen zerrenda onartzea; horretarako, Zuzendaritza Nagusiak proposamena egingo du eta funtzio publikoan eskudun den organoak txostena emango du.

f) Erakundera sartzeko proben deialdia onartzea, deialdi horien ezaugarriak finkatzea eta langileak hautatu eta onartzeko aintzat hartu behar diren irizpideak ezartzea; horretarako, Zuzendaritza Nagusiak proposamena egingo du eta funtzio publikoan eskudun den organoak txostena emango du.

g) Erakundeko langileen ordainsaria onartzea; horretarako, Zuzendaritza Nagusiak proposamena egingo du eta EAEko administrazioko langileei oro har aplikatu behar zaien araudia beteko da.

h) Erakundeak emango dituen kreditu, abal eta bestelako kauzioen eragiketen ezaugarriak eta baldintza orokorrak zehaztea.

i) Erakundearen zorpetze programa ezartzea.

j) Beste finantza erakunde publiko eta pribatuekin egingo diren finantzaketarako hitzarmenak edo finantza lankidetzarako hitzarmenak baimentzea.

k) Merkataritza sozietateen, kooperatiben edo fundazioen hasierako kapital edo dotazioan parte hartzea eta enpresaren ondarea erosi eta besterentzeko erabakia hartzea, aldez aurretik indarreko arauetan exijitutako baimena lortuz, hala behar bada.

l) Finantza eta kredituei lotutako gaietan Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren ordezkari izango diren pertsonak izendatzea, baldin eta horrela xedatzen bada edo Eusko Jaurlaritzak nahiz finantzen esparruan eskuduna den sailak agintzen badu.

m) Kontratazio organoari dagozkion eskumena esleitu eta horietaz baliatzea arlo publikoko kontratuen legea edo ondare legea bete behar duten kontratuetan,

rá las reuniones de dicho órgano la vocal o el vocal representante del Departamento competente en materia de finanzas que aquélla designe.

***Artículo 8***.– Facultades.

El Consejo de Administración tendrá las siguientes facultades:

a) Definir anualmente las líneas generales de actuación del Instituto, de acuerdo con las directrices emanadas del Gobierno Vasco.

b) Aprobar el anteproyecto de presupuesto del Instituto.

c) Aprobar las cuentas que ha de rendir el Instituto, a los efectos de su control financiero.

d) Aprobar la memoria anual de actividades del Instituto.

e) Aprobar la organización interna, la plantilla y, en su caso, la relación de puestos de trabajo del Instituto, a propuesta de la Dirección General y previo informe preceptivo del órgano competente en materia de función pública.

f) Aprobar las convocatorias de pruebas de acceso al Instituto, y establecer las características de las mismas y los criterios que se han de seguir para la selección y admisión del personal, a propuesta de la Dirección General y previo informe preceptivo del órgano competente en materia de función pública.

g) Aprobar la retribución del personal del Instituto, a propuesta de la Dirección General y de conformidad con la normativa de aplicación con carácter general al personal al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma.

h) Determinar las características y condiciones generales de las operaciones de crédito, avales y otras cauciones a conceder por el Instituto.

i) Establecer el programa de endeudamiento del Instituto.

j) Autorizar convenios de financiación o de colaboración financiera con otras instituciones financieras, públicas y privadas.

k) Acordar, con las autorizaciones previas que, en su caso, sean exigidas por la normativa vigente, la participación en el capital o dotación fundacional de sociedades mercantiles, cooperativas o fundaciones, así como la adquisición y enajenación de patrimonio empresarial.

l) Designar las personas que deban tener la representación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en cuestiones de índole financiera y crediticia, cuando alguna disposición lo prevea o se lo encomiende el Gobierno Vasco o el departamento competente en materia de finanzas.

m) Adjudicar y ejercer las facultades correspondientes al órgano de contratación en los contratos sometidos a la legislación de contratos del sector público o la legis-

betiere horien eskumena ez bazaio zuzendari nagusiari izendatu.

***9. artikulua.–*** Funtzionatzeko araubidea.

1.– Administrazio Kontseilua dagozkion eginkizunak burutzeko behar beste aldiz bilduko da. Edonola ere, hiru hilerik behin bilduko da gutxienez.

2.– Administrazio Kontseiluaren bilerak behar bezala eratuta egoteko honakoak bertaratu behar dira: kontseiluburua eta idazkaria, edo horien ordezkoak, eta kontseilukideen erdia baino gehiago. Nolanahi ere, eta deialdiaren baldintzak bete ez arren, Kontseilua behar bezala eratu dela ulertuko da kontseilukide guztiak bertaratu eta aho batez erabakitzen dutenean behar bezala eratuta dagoela.

3.– Kontseilu Nagusiaren eztabaidak isilpekoak izango dira.

4.– Erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilaz hartuko dira, gehiengo kualifikatua behar dela berariaz ezartzen denean izan ezik. Kontseiluburuak berdinketak ebazteko kalitateko botoa izango du.

5.– Bilera guztien akta egingo da. Aktetan honakoak jasoko dira: nortzuek azaldu diren, bilera non eta noiz egin den, aztertu diren gai nagusiak, bozketa-moduak, bozketen emaitzak eta erabakien edukia. Aktak idazkariak sinatuko ditu, kontseiluburuak ontzat emanik, eta bilera berean zein hurrengoan onetsiko dira.

6.– Administrazio Kontseiluak, xedapen hauetan ezarritakoez gain, funtzionamendurako beste arau batzuk ere hartu ahal izango ditu.

3. ATALA
ZUZENDARITZA NAGUSIA

***10. artikulua.–*** Izendapena.

1.– Eusko Jaurlaritzak izendatuko du erakundeko zuzendari nagusia, finantzen esparruan eskudun den sailburuak proposamena egin ostean eta Administrazio Kontseilua entzun ondoren.

2.– Zuzendari nagusiaren lanpostua denbora osokoa da; lanpostu horri, gainera, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendariei dagokien estatutua arautzeko otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuan ezarritakoa aplikatuko zaio.

***11. artikulua.–*** Eskumenak.

1.– Zuzendaritza Nagusia kide bakarreko organoa da. Berak du zuzendaritza nagusia; Euskal Finantza Erakundeak dituen eginkizunak koordinatu, sustatu eta ikuskatzen ditu eta berari dagokio egunero erakundearen jarduerak burutzea, administrazioa eta kudeaketa gauzatze aldera. Horretarako, dena den, Administrazio

lación patrimonial, cuya competencia no esté atribuida al Director o Directora General.

***Artículo 9.–*** Régimen de funcionamiento.

1.– El Consejo de Administración se reunirá tantas veces sea necesario para el desempeño de sus funciones. En todo caso, se reunirá al menos una vez al trimestre.

2.– Las reuniones del Consejo de Administración quedarán válidamente constituidas cuando, además de su Presidente o Presidenta y de su Secretario o Secretaria o quienes les suplan, estén presentes más de la mitad de sus miembros. En cualquier caso, el Consejo quedará válidamente constituido, aun cuando no se hubieran cumplido los requisitos de convocatoria, cuando hallándose presentes todos sus miembros así lo acordaran por unanimidad.

3.– Las deliberaciones del Consejo General tendrán carácter reservado.

4.– Los acuerdos se adoptarán por mayoría simple de los miembros asistentes, salvo aquellos supuestos en que expresamente se exija una mayoría cualificada, teniendo la presidencia voto de calidad para dirimir los empates.

5.– De cada sesión se levantará acta que contendrá la indicación de las personas que hayan asistido, así como las circunstancias de lugar y tiempo en que se ha celebrado, los puntos principales de la deliberación, la forma y resultados de la votación y el contenido de los acuerdos. Las actas serán firmadas por el Secretario o Secretaria con el visto bueno de la presidencia, y se aprobarán en la misma o en la siguiente sesión.

6.– El Consejo de Administración podrá adoptar normas de funcionamiento complementarias de las presentes disposiciones.

SECCIÓN 3.ª
DIRECCIÓN GENERAL

***Artículo 10.–*** Nombramiento.

1.– El Director o la Directora General del Instituto es nombrado por el Gobierno Vasco a propuesta del Consejero o de la Consejera competente en materia de finanzas, una vez oído el Consejo de Administración.

2.– El puesto de Director o Directora General requiere una dedicación absoluta y exclusiva, siéndole de aplicación lo establecido en el Decreto 130/1999, de 23 de febrero, por el que se regula el estatuto personal de los directivos de los Entes Públicos de Derecho Privado y de las Sociedades Públicas.

***Artículo 11.–*** Facultades.

1.– La Dirección General es el órgano unipersonal que ejerce la máxima dirección, coordinación impulso y supervisión de las funciones que tiene atribuidas el Instituto Vasco de Finanzas y a quien corresponde la ejecución diaria de las actividades propias del Instituto, en orden a su administración y gestión, dentro de los

Kontseiluak ezarritako mugak eta adierazitako arauak beteko ditu.

2.– Administrazio Kontseiluak bere esku utzi ditzakeen beste eskumen batzuk alde batera utzita, zuzendari nagusiak honako eginkizunak izango ditu:

a) Erakundearen izenean sinatzea.

b) Aurrekontua betetzeari buruzko kontuak ematea Administrazio Kontseiluari.

c) Erakundearen urteko jarduketa programa, aurrekontuen aurreproiektua, ekitaldiko finantza egoerak eta jarduketen memoria lantzea. Gero, Administrazio Kontseiluari bidaliko dizkio honek onets ditzan.

d) Erakundearen administrazio arauak bete eta betearaztea, baita Administrazio Kontseiluaren erabakiak ere.

e) Gastuak baimentzea eta ordainketak agintzea; arlo publikoko kontratu legeen edo ondare legeen menpeko kontratuetan kontratazio organoari dagozkion eskumenak esleitu eta horietaz baliatzea, betiere horien balio estimatua 5.000.000 eurokoa edo hortik beherakoa bada, eta enpresaren ondarea esleitzea eta besterentzea salbuetsiz.

f) Erakundeko zerbitzu eta bulego guztien jarduketa zuzendu eta ikuskatzea.

g) Erakundeko barne antolaketa eta langileen plantila onartu dadin proposatzea.

h) Erakundera sartzeko proben deialdiak eta horien ezaugarriak proposatzea eta, horretaz gain, langileak aukeratzeko irizpideak ezarri eta lanpostuak betetzeko prozedurak ebaztea.

i) Erakundeko langileen buru gorena izatea, eta horien diziplina araubidea betetzea.

j) Kreditu, abal eta bestelako kauzioen eragiketak onartzea, Administrazio Kontseiluak ezarritako mugak betez betiere.

k) Legez ezarrita dauden edo Jaurlaritzaren Kontseiluak nahiz finantzen esparruan eskumena duen sailak jaso behar dituen irizpenak eta txostenak prestatzea.

l) Jaurlaritzaren Kontseiluak edo finantzen esparruan eskumena duen sailak Euskal Finantza Erakundeari esleitu dizkion edo haren esku utzi dituen eskumen guztiak erabiltzea, baldin eta eskumen horiek Administrazio Kontseiluari esleitu ez bazaizkio.

m) Lankidetza hitzarmenak sinatzea erakunde publiko eta pribatuekin, erakundeari agindu zaizkion eginkizunak hobeto betetzeko.

n) Euskadiko ondareari buruzko Legearekin bat etorriz, erakundeak dituen eta beste organo bati esleitu ez zaizkion eskumenak erabiltzea.

límites y de acuerdo con las directrices señaladas por el Consejo de Administración.

2.– Sin perjuicio de otras facultades que pueda delegarle el Consejo de Administración, el Director o Directora General tendrá las siguientes atribuciones:

a) Llevar la firma del Instituto.

b) Rendir cuentas ante el Consejo de Administración del cumplimiento del presupuesto.

c) Elaborar el programa de actuación anual, el anteproyecto de presupuestos, los estados financieros de ejercicio y la Memoria de actividades del Instituto, que deberá elevar para su aprobación al Consejo de Administración.

d) Ejecutar y hacer cumplir las normas administrativas del Instituto y los acuerdos del Consejo de Administración.

e) Autorizar gastos y ordenar pagos, así como adjudicar y ejercer las facultades correspondientes al órgano de contratación en los contratos sometidos a la legislación de contratos del sector público o a la legislación patrimonial, cuyo valor estimado sea igual o inferior a 5.000.000 de euros, salvo la adquisición y enajenación de patrimonio empresarial.

f) Dirigir y supervisar la actuación de todos los servicios y dependencias del Instituto.

g) Proponer la aprobación de la organización interna y de la plantilla de personal del Instituto.

h) Proponer las convocatorias de pruebas de acceso al Instituto, las características de las mismas y los criterios que se han de seguir para la selección del personal, y resolver los procedimientos de provisión.

i) Ostentar la superior jefatura del personal del Instituto, así como ejercer su régimen disciplinario.

j) Aprobar operaciones de crédito, avales y otras cauciones, dentro de los límites que establezca el Consejo de Administración.

k) Emitir los dictámenes e informes que sean preceptivos legalmente o que tengan por destinatario al Consejo de Gobierno o al departamento competente en materia de finanzas.

l) Ejercer todas las competencias atribuidas o delegadas en el Instituto Vasco de Finanzas por el Consejo de Gobierno o el departamento competente en materia de finanzas que no están atribuidas al Consejo de Administración.

m) Firmar convenios de colaboración, con entidades públicas y privadas, para un mejor desempeño de las funciones encomendadas al Instituto.

n) Ejercer las competencias que, conforme a la Ley de Patrimonio de Euskadi, correspondan al Instituto y no se encuentren expresamente atribuidas a otro órgano.

o) Erakundearen ohiko kudeaketa eta administraziorako beharrezkoak diren bestelako eginkizunak, baldin eta Administrazio Kontseiluari esleitu ez bazaizkio.

3.– Erakundeko Zuzendaritza Nagusiko titularra hutsik egotea, ez egotea edo gaisorik izatea gertatuz gero, bere eskumenak Administrazio Kontseiluko buruak edo horri eskuordetutako pertsonak beteko ditu egoera horrek dirauen artean eta, betiere, ez badira eskuordetu egoera hori baino lehen.

4. ATALA
AHOLKU KONTSEILUA

***12. artikulua.***– Osaketa.

1.– Euskal Finantza Erakundearen Aholku Kontseilua honakoek osatuko dute:

a) Kontseiluburua. Administrazio Kontseiluko buruak hartuko du kargu hori, edo, bere ordez, berak izendatzen duenak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sei bokal, honen ondoren aditzera ematen diren esparruetan eskumena duen sail bakoitzeko ordezkari bat: finantzak, ogasuna, industri sustapena, etxebizitza, kultura eta nekazaritza. Eusko Jaurlaritzak izendatuko ditu ordezkari horiek, dagokion sailburuak proposamena egin ostean.

c) Eusko Jaurlaritzak izendatuko dituen kide bi, finantzen esparruan eskuduna den sailburuak proposatu ondoren. Jaurlaritzak finantzen, ekonomiaren, gizartearen eta unibertsitatearen munduan gaitasun, ospe eta esperientzia handia duten pertsonen artean aukeratuko ditu bi kide horiek. Horien kargua lau urterakoa izango da, baina berritu ahal izango da. Kargua doakoa izan arren, sortzen zaizkien gastuak ordaindu egingo zaizkie.

2.– Erakundeko zuzendari nagusiak Aholku Kontseiluko idazkari gisa jardungo du; hizpidea izango du baina ezin izango du botorik eman.

***13. artikulua.***– Eskumenak.

Aholku Kontseiluak ondorengoak aztertu, proposatu edota horien gaineko txostena emateko eskumena izango du:

a) Erakundeak emango dituen kreditu, abal eta bestelako kauzioen eragiketen ezaugarriak eta baldintza orokorrak.

b) Erakundearen zorpetze programa, Administrazio Kontseiluak zehaztu dituen jarduteko ildo orokorren barruan.

c) Beste finantza erakunde publiko eta pribatuekin egingo diren finantzaketarako hitzarmenak edo finantza lankidetzarako hitzarmenak.

d) Administrazio Kontseiluak bere esku uzten duen beste edozein gai.

o) Cualesquiera otras funciones que requiera la gestión y administración ordinaria del Instituto y no están atribuidas al Consejo de Administración.

3.– En los casos de vacante, ausencia o enfermedad del titular de la Dirección General del Instituto las competencias atribuidas al mismo, en el supuesto de que no hayan sido delegadas antes de producirse tal situación y mientras dure la misma, serán ejercidas por la Presidencia del Consejo de Administración o la persona en quien ésta delegue.

SECCIÓN 4.ª
CONSEJO ASESOR

***Artículo 12.***– Composición.

1.– El Consejo Asesor del Instituto Vasco de Finanzas estará integrada por:

a) El presidente, que será el presidente del Consejo de Administración o la persona en quien delegue.

b) Seis vocales en representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, uno por cada uno de los departamentos competentes en materia de finanzas, hacienda, promoción industrial, vivienda, cultura y agricultura, designados por el Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero o Consejera correspondiente.

c) Dos vocales designados por el Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero o Consejera del Departamento competente en materia de finanzas, entre personas de reconocida competencia, prestigio y experiencia en el mundo financiero, económico, social y universitario. El cargo dura cuatro años, pudiendo ser renovado, y es gratuito aunque serán resarcidos de los gastos que les pueda comportar el ejercicio del mismo.

2.– Actuará como secretario del Consejo Asesor, con voz pero sin voto, el Director o Directora General del Instituto.

***Artículo 13.***– Facultades.

El Consejo Asesor tendrá las facultades de examinar, proponer y/o informar:

a) Las características y condiciones generales de las operaciones de crédito, avales y otras cauciones a conceder por el Instituto.

b) El programa de endeudamiento del Instituto, dentro de las líneas generales de actuación definidas por el Consejo de Administración.

c) Los convenios de financiación o de colaboración financiera con otras instituciones financieras, públicas y privadas.

d) Cualquier otra cuestión que pueda ser sometida a su consideración por el Consejo de Administración.

***14. artikulua.***– Funtzionatzeko araubidea.

1.– Aholku Kontseilua dagozkion eginkizunak burutzeko behar beste aldiz bilduko da.

2.– Bileren deialdiei, horien baliozkotasunari, bertan hartutako eta egindako erabaki eta akten baliozkotasunari eta bileretan eztabaidatzen diren gaien isilekotasunari buruz Administrazio Kontseiluari ezarri zaizkion arau berberak aplikatuko zaizkio Aholku Kontseiluari.

IV. KAPITULUA
LANGILEAK ETA EKONOMIA ETA ONDAREAREN ARAUBIDEA

***15. artikulua.***– Euskal Finantza Erakundeko langileak.

1.– Berariaz kontratatutako pertsonek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko edo horren menpeko erakundeetako langileek beteko dituzte Euskal Finantza Erakundeko lanpostuak, lanpostu bakoitzari esleitu zaizkion eginkizunak kontuan hartuta. Erakundean lan egiteko kontratatzen diren pertsonen kasuan lan zuzenbidea izango da aginduzko.

2.– Langileak kontratatzeko, erakundearen Administrazio Kontseiluak ezarri eta deitutako onarpen probak egingo dira. Horietan, hain zuzen, publizitatearen, berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak beteko dira.

***16. artikulua.***– Ondarearen araubidea.

1.– Erakundearen ondarea Euskadiko ondarean sartzen da. Izan ere, titular gisa dagozkion ondasun eta eskubideen multzoak osatzen du erakundearen ondarea, Euskadiko ondareari buruzko Legearen testu bateginean (azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak onetsia) ezarritakoarekin bat etorriz.

2.– Euskal Finantza Erakundeari —titular gisa dituen eta atxikita dituen— ondasun eta eskubideen eskumenak dagozkio, Euskadiko ondareari buruzko Legearen testu bateginean (azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak onetsia) ezarritakoarekin bat etorriz.

3.– Erakundeari atxikitako ondasun eta eskubideen gainean jarraipena egingo da, horien ondare-kontabilitatearen bitartez. Halaber, erakundea lankidetzan arituko da Ogasun eta Herri Administrazio Saileko organo eskudunarekin inbentario orokorra eta merkataritza sozietateen kapitaleko akzioen eta errepresentazio tituluen inbentario laguntzailea gauzatzeko.

***17. artikulua.***– Baliabide ekonomikoak.

Euskal Finantza Erakundeak ondorengo baliabide ekonomikoak ditu bere eginkizunak betetzeko:

a) Erakundearen hasierako zuzkidura, gehi gizarte funtsean egiten diren gehikuntzak.

***Artículo 14.***– Régimen de funcionamiento.

1.– El Consejo Asesor se reunirá tantas veces sea necesario para el desempeño de sus funciones.

2.– Las normas establecidas para el Consejo de Administración relativas a la convocatoria, validez de las reuniones y de los acuerdos, actas, y carácter reservado de las deliberaciones serán igualmente de aplicación para el Consejo Asesor.

CAPÍTULO IV
PERSONAL, RÉGIMEN ECONÓMICO Y PATRIMONIAL

***Artículo 15.***– Personal del Instituto Vasco de Finanzas.

1.– Los puestos de trabajo del Instituto Vasco de Finanzas serán desempeñados por personal contratado al efecto y por personal de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi o entidades dependientes de ella, según la naturaleza de las funciones asignadas a cada puesto de trabajo. El personal contratado al servicio del Instituto se regirá por el Derecho laboral.

2.– La contratación de personal se realizará mediante las correspondientes pruebas de admisión establecidas y convocadas por el Consejo de Administración del Instituto, con arreglo a los principios de publicidad, igualdad, mérito y capacidad.

***Artículo 16.***– Régimen patrimonial.

1.– Constituye el patrimonio del Instituto, integrado en el patrimonio de Euskadi, el conjunto de los bienes y derechos cuya titularidad le corresponda, de acuerdo con lo establecido en el texto refundido de la Ley de Patrimonio de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre.

2.– Corresponden al Instituto Vasco de Finanzas las facultades sobre los bienes y derechos cuya titularidad ostente, así como sobre los que tengan adscritos, de conformidad con lo dispuesto en el texto refundido de la Ley de Patrimonio de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre.

3.– Los bienes y derechos adscritos al Instituto serán objeto de seguimiento a través de su contabilidad patrimonial. Asimismo, el Instituto prestará la colaboración que requiera la confección del Inventario General llevado a cabo por el órgano competente del Departamento de Hacienda y Administración Pública y del inventario auxiliar de acciones y títulos representativos de capital en sociedades mercantiles.

***Artículo 17.***– Recursos económicos.

El Instituto Vasco de Finanzas cuenta para el cumplimiento de sus fines con los siguientes recursos económicos:

a) La dotación inicial del Instituto, más los incrementos que en su fondo social se produzcan.

b) Urtero Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ezartzen diren esleipenak.

c) Beste administrazio publiko batzuen diru-laguntzak eta ekarpenak, eta erakundearen alde egindako dohaintzak.

d) Bere ondarean sartzen diren ondasun eta eskubideen ondoriozko diru-sarrerak eta bere jardueren ondoriozko diru-sarrerak (arruntak eta apartekoak).

e) Beste finantza erakunde publiko nahiz pribatu batzuen ekarpenak. Horiek legeen bidez ezarri daitezke edo, bestela, erakundearekin egindako finantza hitzarmenen edo finantza lankidetzarako hitzarmenen bidez.

f) Errenta finkoko balioen igorpenak edo zorpetzeari lotutako bestelako eragiketak, eta erakundearen aktiboen eta pasiboen kudeaketa integralaren ondoriozko baliabideak, bereziki kredituen erabileraren ondoriozkoak. Hori guztia, betiere, aktiboen titulartasunari buruzko araudia betez. Era berean, arestian aipatutakoez bestelako finantza eragiketen ondoriozkoak, erakundearen xedearekin bat badatoz.

g) Esleitu ahal zaizkion bestelako baliabideak.

***18. artikulua.***– Aurrekontu eta finantza araubidea.

1.– Euskal Finantza Erakundeak urtero prestatu eta onartzen du aurrekontuen aurreproiektua eta Eusko Jaurlaritzari bidaltzen dio, modu beregainean Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan txertatze aldera, EAEko aurrekontu araubidea arautzen duten legeen arabera.

2.– Euskal Finantza Erakundeak kredituak, abalak eta bestelako kauzioak eman edo bideratu ahal izango ditu erakunde autonomoen, korporazio publikoen eta enpresa publiko eta pribatuen izenean, baina aurrekontuei buruzko urteko legeetan ezarritako mugak zainduz.

3.– Erakundeak edozein motatako bermeak eman ahal izango ditu finantza eragiketetarako, berdin da zein den horiek bideratzeko modalitatea.

4.– Euskal Finantza Erakundearen ondarearen gaineko betebeharrek Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren bermea dute, Ogasun Nagusiaren baldintza berberetan.

***19. artikulua.***– Kontrol ekonomikoaren eta kontabilitatearen araubidea.

1.– Euskal Finantza Erakundearen kontrol ekonomikoa kontrol ekonomiko-finantzarioaren eta kudeaketa iraunkorraren bidez gauzatuko da, Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legean eta hori garatzeko arauetan ezarritakoarekin bat etorriz.

b) Las asignaciones que se establezcan anualmente con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

c) Las subvenciones, aportaciones de otras administraciones públicas y donaciones que se concedan a su favor.

d) Los ingresos derivados de los bienes y derechos integrados en su patrimonio y los ingresos, ordinarios y extraordinarios, derivados del ejercicio de sus actividades.

e) Las aportaciones de otras instituciones financieras, públicas o privadas, que se establezcan de acuerdo con las leyes o por medio de convenios de financiación o de colaboración financiera con el instituto.

f) Las emisiones de valores de renta fija u otras operaciones de endeudamiento y los recursos derivados de la gestión integral de sus activos y pasivos, en particular de la titulización de sus créditos de acuerdo con la normativa sobre titulización de activos. Asimismo, los provenientes de otras operaciones financieras distintas de las señaladas anteriormente, acordes con la propia finalidad del instituto.

g) Cualesquiera otros recursos que puedan serle atribuidos.

***Artículo 18.***– Régimen presupuestario y financiero.

1.– El Instituto Vasco de Finanzas elabora y aprueba anualmente su anteproyecto de presupuestos y lo remite al Gobierno Vasco para que sea integrado, con la debida independencia, en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de conformidad con la legislación reguladora del régimen presupuestario de Euskadi.

2.– El Instituto Vasco de Finanzas podrá conceder o instrumentar créditos, avales y otras cauciones, a favor de entidades autónomas, corporaciones públicas y empresas públicas y privadas, dentro de los límites previstos en las leyes anuales de presupuestos.

3.– El Instituto podrá prestar garantías de cualquier tipo sobre operaciones financieras, cualquiera que sea la modalidad de su instrumentación.

4.– Las obligaciones patrimoniales del Instituto Vasco de Finanzas tienen la garantía de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en los mismos términos que los de la Hacienda General.

***Artículo 19.***– Régimen de control económico y contabilidad.

1.– El control económico del Instituto Vasco de Finanzas se ejerce en la modalidad de control económico-financiero y de gestión de carácter permanente, de acuerdo con lo establecido en la Ley 14/1994, de 30 de junio, de Control Económico y Contabilidad y su normativa de desarrollo.

2.– Erakundeak ekonomia eta finantzei buruzko bere informazioa izango du eta Kontabilitate Plan Orokorreko irizpideak betez jasoko du. Horretaz gain, ekonomia eta finantzei buruzko informazio horrek ezinbestean beteko du Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak gai horri buruz zuzenbide pribatuko erakunde publikoei ezarritakoa, baita xede berarekin Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emandako arauak ere.

***20. artikulua.***– Jarduteko arauak.

1.– Euskal Finantza Erakundearen jarduerak, bere eginkizunak betez, finantza politikari eta kreditu publikoari buruz Eusko Jaurlaritzak edo finantzen arloan eskumena duen sailak ezarritako jarraibide orokorrak bete beharko ditu, eta sustapenari eta suspertzeari lotutako arlo politiketan —Eusko Jaurlaritzak onartutakoetan— aurreikusitakoari egokituko zaio.

2.– Erakundearen organoetako kideek ezingo dute, aginte-aldian zehar, euren finantza erakunde pribatuekin edo erakundearen eskumen edo eginkizunekin zerikusirik duten entitateekin lotutako jarduera profesionalik.

3.– Erakundearen organoetako pertsonalak eta kideek —baita euren eginkizunak utzi ondoren ere— karguez edo eginkizunez baliatzerakoan jaso dituzten informazioak —izaera erreserbatutakoak— isilpean gorde beharko dituzte.

4.– Euskal Finantza Erakundeak euskararen eta gaztelaniaren erabilera bermatuko du erakundez kanpoko harremanetan. Pertsona fisiko eta juridikoei, halaber, euren arteko harremanetan —ahozkoetan zein idatzizkoetan— euskara eta gaztelania erabiltzeko eskubidea bermatuko zaie, baita zerbitzua bi hizkuntzotan eskaintzekoa ere.

2.– El Instituto llevará su propia información económico-financiera, elaborada de acuerdo a los criterios del Plan General de Contabilidad. Esta información económico-financiera se ajustará a lo que la normativa de la Comunidad Autónoma de Euskadi establezca al respecto para los entes públicos de derecho privado, así como a las directrices que con ese mismo fin dicte la Oficina de Control Económico.

***Artículo 20.***– Normas de actuación.

1.– La actuación del Instituto Vasco de Finanzas en el ejercicio de sus funciones se someterá a las directrices generales que en relación con la política financiera y de crédito público le pueda señalar el Gobierno Vasco o el departamento competente en materia de finanzas y se acomodará a lo previsto en las políticas sectoriales de promoción y fomento aprobadas por el Gobierno Vasco.

2.– Los miembros de los órganos del Instituto no podrán ejercer durante su mandato actividades profesionales relacionadas con instituciones financieras privadas o con entidades relacionadas con las competencias y funciones del Instituto.

3.– El personal y los miembros de los órganos del Instituto deberán guardar secreto, incluso después de cesar en sus funciones, de cuantas informaciones de naturaleza reservada tuvieran conocimiento en el ejercicio de sus cargos o funciones.

4.– En sus relaciones externas, el Instituto Vasco de Finanzas garantizará el uso del euskera y del castellano. Asimismo, se garantizará a las personas físicas y jurídicas el derecho a usar el euskera y el castellano en sus relaciones, tanto orales como por escrito, con el Instituto, así como a ser atendidos en ambas lenguas.